# DEIALDIA: TEKAZELentzako HOBEKUNTZA IKASTAROAK 2027. URTEA (urtarrila-ekaina)

EHUko Euskararen IV. Plan Gidarian jasotzen denez, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak euskarazko hizkuntza-prestakuntzaren eskaintza laugarren ardatz estrategikoko helburu eta ekintzen artean kokatzen du.

2026/2027 ikasturtean, IVAPek antolatutako berariazko zenbait ikastaro egin ahal izan dira udazkenean. Eta urtarriletik ekaina bitartean, beste eskaintza hau egingo da ezagutzatik erabilerarako jauzia egiteko baliabideak eskaintzeko.

Saio hauen helburu nagusia da euskararen erabileran segurtasuna lotzea. Horretarako erabili daitezkeen estrategiak landuko dira ikastaro hauetan, eta lanerako erregistro, lexiko, testu eta diskurtso motak jorratuko dira.

Deialdi honen bitartez 2027ko urtarrilaren 22an hasi eta ekainaren 25era bitarteko **HOBEKUNTZA IKASTAROETAN** izena emateko epea zabaltzen da.

## 1. Ikastaroen eskaintza

| Saioa | Non | Gutxieneko HE | Helburuak |
|---|---|---|---|
| **"Euskarari beldurra kenduz, ahozkoan lehen urratsak "** | Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa | 1. HE | • 2. HEko azterketa gainditzeko atarian dauden langileentzat.<br>• Euskararen erabileraren "beldurra" gainditzeko eman behar duten urratsa emateko laguntza. |
| **"Oinarrizko jarduna ahozkoan"** | Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa | 2. HE | • Modu sinplean bada ere, naturaltasunez hitz egitea lortu nahi duten langileentzat bideratutako ikastaroa.<br>• Euskaraz hitz egiteko guneak bilatzen dituztenentzat. |
| **"Administrazioan ahoz komunikatzeko gaitasuna lantzen"** | Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa | 3. HE | • Beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak eta testugintzari loturiko aholkuak lantzea.<br>• Testuaren kohesioa eta diskurtsoaren garapen orokorra eta egokitasuna lantzea.<br>• Testu komunikatiboak sortzeko gaitasuna lantzea.<br>• Goi-mailako mintzamena landu nahi duten langileentzat.<br>• Euskaraz hitz egiteko guneak bilatzen dituztenentzat.<br>• Lehentasuna izango dute 3. HE egiaztatua duten langileak 4. HE egiaztatua dutenen aurrean. |

**Hasiera data**: urtarrilaren 22a

**Bukaera data**: ekainaren 25a

**Eguna:** ostiraletan (21 astez)

**Ordutegia**: Talde guztiek ordutegi bera izango dute, 08:00etatik 10:00etara. Ezinbestekoa izango da ikastarora garaiz iristea, **bertaratze-kontrola** egingo bait da. Ikastaroa egiteko onartutako langileei, Unibertsitateak **ikastaroan benetan emandako denbora** soilik emango die. Horrela, TEKAZELen lanaldi, lanorduen kontrol, opor eta baimenei buruzko Gerentziaren zirkularraren 15.1.3. artikuluan xedatutakoa beteko da.

**Lekua**: Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioan. Campusean bertan.

**Taldeen antolakuntza**: Talde bat sortzeko gutxienez 6 ikasle beharko dira. Taldeak, gehienez, 15 ikasle izango ditu. Gutxieneko kopuru hori egon ezean, ikastaroa bertan behera geratuko da.

## 2. Bete beharreko baldintzak

Deialdian parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

- Ikastaro bakoitzean eskatzen den gutxieneko HE egiaztatua izatea.
- Arduradunaren Txostenean ikastaroa egiteko baimena jasotzea.
- Eskarian datu guztiak ongi betetzea.

## 3. Eskaera

### 3.1. Eskaerak betetzean kontuan hartu beharrekoak

Ezinbestekoa da Arduradunaren Txostena aurkeztea sinadura digitalarekin. Arduradunak baimena ukatuz gero, arrazoiak azaldu beharko ditu "Arduradunaren Txostena" dokumentuan.

### 3.2. Eskaerak aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko epea **2026ko azaroaren 10etik azaroaren 20ra** arte zabalik egongo da. Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

- **Oharra**: eskariak egiteko azken eguna helduta arduradunaren baimenik lortu ez bada, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango da baimen hori.

### 3.3. Eskaerak non aurkeztu

Eskaerak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren webgunean dagoen inprimakia betez aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: https://www.ehu.eus/eu/web/forms/shared/-/form/76823524

Eskatzaileak **Arduradunaren Txostena EHUren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko du,** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari Nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Ebazpenean, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen bitarteko elektronikoekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegian ezarritakoaren arabera.

Beharrezkoa da "Erregistro Elektroniko Orokorra" atalean sartzea eta "AZALTZEN DU" eta "ESKATZEN DU" eremuetan ondorengoa adieraztea: **Hobekuntza Ikastaroak 2027** (Hartzailea: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza_**U02000384**).

Horretarako, egoitza elektronikoan jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

3.4. Eskariak antolatzeko irizpideak

Eskariak antolatzeko orduan kontuan hartuko dira hizkuntza-eskakizuna, lan-harremana, lanpostuaren unitatearen izaera, antzinatasuna eta aurreko euskara ikastaroetan izandako aprobetxamendua.

2026/2027 ikasturtean lanorduetan liberaziorik izan ez duten langileek lehentasuna izango dute.

## 4. Onartuen eta baztertuen zerrendak

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira iragarki-oholean (EHU - Iragarki-ohol korporatibo Sistema: https://www.ehu.eus/eu/web/ehutaula/menua, eta "Euskara eta eleaniztasuna" webgunean: https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hizkuntza-prestakuntza/tekazelen-hizkuntza-prestakuntza/ikastaroen-eskaintzak/hobekuntza-ikastaroak

Behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren, interesdunek 10 egunetako epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak deialdi honetako 3.3 puntuan azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira.

Hutsak zuzentzeko, dokumentazioa gehitzeko eta erreklamazioak egiteko epea amaitu ondoren argitaratuko dira onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak lehen aipatutako webgunean.

## Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruz Europako Parlamentuaren 2016/679 EB Erregelamenduaren 13. artikuluan eta Kontseiluaren apirilaren 27ko xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu zure datuak EHUren ardurapeko fitxategi batean sartuko direla, bai eta honako alderdi hauetan ere: datuak «AZPkoen euskara hizkuntza-prestakuntza» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira. Euskara hobetzeko eta euskarazko hizkuntza-eskakizuna lortzeko prestatzeko ikastaroak egiteko eskabideak kudeatzea da tratamenduaren helburua.

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen datuak ikastaroak ematen dituen enpresari jakinaraziko zaizkio. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, baita beste eskubide batzuk ere, helbidean eskuragarri dagoen https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/babestu informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Tratamenduari buruzko informazio osoa hemen dago: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/-/tg0061.